

NAFARROA

10 URTE
UPN
GABE

GAUZATU
GABEKO
ALDAKETA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU
ROBLES
ARANGIZ**
FUNDAZIOA

EDUKIEN AURKIBIDEA

Hitzaurrea

2015-25 aldiko bilakaera gai hauetan:

1. Normalizazio demokratikoa
2. Nafarroaren estatus politikoa
3. Euskara
4. Ekonomia
5. Zerbitzu Publikoak
6. “Elkarriketa soziala”
7. Laneko ezbehar tasa
8. Genero-politikak
9. Polizia-eredua
10. Ingurumena

Ondorioak

HITZAURREA

Dagoeneko hamar urte igaro dira UPN Nafarroako Gobernutik kanporatua izan zenetik. Gertaera hori milaka nafarren memorian iltzatuta dago, gertakari ahaztezin moduan. Une hura pozez bizi izan zen, murrizketen gobernuai amaiera emateagatik, baita ilusioz ere, aro berri bat irekitzeagatik.

UPN boteretik kanporatzeak, ia mende laurdenean gobernuan egon ondoren, espektro instituzionalaren berrantolaketa ekarri zuen. 2015ean, lehen aldiz, posible izan zen PSNren menpe egon gabe gobernu alternatibo bat osatzea. Geroa Bai, Podemos, EH Bildu eta Izquierda-Ezkerraren arteko akordioari esker sortu zen Uxue Barkos buru zuen gobernua. Urralbururen garaitik ustelkeriak markatua, elite ekonomikoen interesekin lerrokatua eta etengabe euskararen normalizazioaren aurka egin duen PSNren menpekotasunik gabe jarduteko aukera hura, ordean, ez zen baliatu UPNk eta PSNk utzitako politikak atzera botatzeko. Horregatik, lehen legegaldi hark frustrazio eta aukera galduaren sentsazio sakona utzi zuen.

2019ko hauteskundeetan ondoren, Maria Chivite bihurtu zen presidente, Geroa Baiekin eta Contigo Zurekinekin koalizioan, EH Bilduren kanpoko babesarekin. Gobernu horrek pandemiaren kudeaketari aurre egin behar izan zion.

Hamar urte igaro ondoren, une aproposa da gobernuaren jarduera eta egindako politikak baloratzeko. Denbora nahikoa izan dute aurreko politikak atzera botatzeko, eta, beraz, ezin dute erregimenaren urteetan jasotako legatua aitzakiatzat erabili. Aldi honetan zehar, ELAk behin eta berriz adierazi du gobernua aldatzeak ez dakarrela berez politiken aldaketarik. Hamar urte hauen balantzeak ideia hori berresten du.

Gertatu denaren garrantzia ulertzeko, komeni da gogoraraztea “erregimen” edo “korrallito foral” izenez ezaguna izan den ziklo politiko luzea. UPN, PSN, patronala, UGT, CC.OO., Opus Dei eta beste hainbat eragilek osatutako sarea zen, Nafarroaren ikuspegi bakarra inposatzeko estrategia partekatua zuena. Nafarroa horretan “nafar zintzoak” eta gainerakoak bereizten ziren; horretarako bazterketa, ahanztura eta jazarpen aktiboa baliatzen ziren sektore herrikoien eta aberztzaileen aurka. ELAk ere jasan zuen jazarpen hori —sistematikoki baztertua izan zen, elkarriketa ukatu zitzaion eta afiliatuak enpresetatik kaleratzeko zerrenda beltzak osatzen ziren—. Sare horren oinarrian eragile politiko, sindikal, erlijioso, mediatiko eta ekonomikoak zeuden, eta diru publikoa erabiltzen zuten enpresa,

pertsona eta erakunde askori laguntza eta finantzaketa emateko. Aldi berean, murrizketa sozialak ezarri zituzten eta gizartearentzat funtsezko tresnetako bat desegin zuten: CAN.

2008ko krisiaren ondoren, murrizketa sozialak areagotu eta ustelkeria-kasuak ugaltu egin ziren. Testuinguru horretan, hainbat erakunde sozial eta sindikal antolatu eta mobilizazio historikoak bultzatzeko gai izan ginen; besteak beste, 2009 eta 2013 artean egindako sei greba orokorrak. Aktibazio sozial hori erabakigarri izan zen UPN Gobernutik kentzeko.

ELA borroka horretan aritu zen, beste sindikatu, gizarte eta eragile politikorekin batera. Gure memoria kolektiboan iltzatuta dago, eta gure militantziarentzat harrotasun arrazoia da: egoerak suminduta, baina ilusioz beterik, aldaketa politiko eta soziala bultzatzeko buru-belarri aritu ginen.

Konpromiso horri eutsita, lanean jarraitu dugu aldaketa hori errealitate bihurtzeko. Hala ere, dokumentu honek jasotzen duen bezala, hamar urte geroago aldaketa gauzatu gabeko zeregina da, eta zenbait arlotan —adibidez, fiskalitatea moduko funtsezkoa esparruan— hasi ere ez da egin.

ELAren ustez, mugimendu sozialen eta sindikatuen eginkizuna ez da aldatzen gobernuan nor dagoenaren baitan. Aitzitik, beti izan behar du helburu kaletik presoia egitea, alderdi politikoek oposizioan defendatzen zituzten gizarte-politikak benetan gauzatzeko.

Dena den, 2015az geroztik gobernuak babestu edo bertan parte hartu duten alderdien estrategia (PSN, Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu, Izquierda-Ezkerra eta Contigo Zurekin) Nafarroako elite ekonomikoei eta enpresa zein erlijio lobbyei oztupo egingo liekeen aldaketa sakon oro saihestea izan da. Izan ere, Sanz eta Barcinaren gobernuen politika askok indarrean jarraitzen dute: zerga-sistema ia ez da aldatu, Abiadura Handiko Trena egiten ari dira, euskararen egoera oraindik normalizatu gabe dago eta UGT, CC.OO. eta CENi finantzaketa publikoa berrezarri zaie.

Hala ere, kritika politiko hau egiteak ez du eragozten hainbat arlotan egindako aurrerapausoak aitortzea: memoria historikoan, torturaren biktimak aitortzean, Skolae programa hezkuntzan ezartzean edo kultura, politika eta gizarte mailan pluraltasun handiagoa onartzean.

Horregatik guztiagatik, sindikatuak —independentzia ekonomiko eta politikoa ardatz hartuta— azken hamar urteetan saiakera egin du “aldaketaren” gobernuen politikak aztertzen eta ebaluatzen. Horretarako, politika horien edukia jarri da erdigunean, ez gobernuan zeuden alderdien kolore politikoa.

Helburu berarekin aurkezten dugu dokumentu hau: aldagetakaren benetako irismenari buruzko azterketa zintzoa eskaintzeko, hainbat esparruri begira (euskara, ekonomia, zerbitzu publikoak, ingurumena...) eta benetako aldageta gauzatzeko egin beharreko lanen inguruan hausnartzeko.

1. AURRERAPAUZO NABARMENAK NORMALIZAZIO DEMOKRATIKOAN

1.1. Nafarroako gizartearen pluraltasuna aitortzea

Urte luzez, UPNren eta PSNren gobernuen sektarismoak Nafarroako gizartearen zati handia ezkutatu zuen, eta inposatutako ikuspegi baztertzailak “nafar zintzoak” eta gainerako nafarrak bereizten zituen. UPN Gobernutik atera zenean, ordea, Nafarroako pluraltasuna aitortu zen, zalantzarik gabe.

ELAk ere jasan zuen “korrallito foralaren” jazarpena. UPNko gobernuak uko egiten zioten gure sindikatuarekin biltzeari, langile klasearen zati handi bat ordezkatzeko duen erakunde bati bizkarra ematen zion jarrera antidemokratikoa. Uxue Barkos Gobernura iristeak aldaketa ekarri zuen, harreman instituzionalak normalizatu zirelarik. Egoera hori PSN buru izan duten gobernuarekin ere mantendu da, salbuespen bakar batekin: Chivite presidenteak uko egin zion gure aldarrikapen zehatz bat entzuteko bilerari, Nafarroak Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren zenbatekoa finkatzeko eskumena bere gain har zezan eskatzeko bilera eskaerari, alegia.

1.2. Aurrerapausoak memoria demokratikoan, Erorien Monumentuaren mantentzea salbu

Azken hamarkadan, Nafarroa izan da Estatuko lurraldeetan memoria demokratikoari dagokionez aurrerapauso handienak eman dituenetako bat.

Hala ere, lorpen horiek ilundu egin ditu PSNren, Geroa Baien eta EH Bilduren arteko akordioak, Iruñeko Eroritakoen Monumentua ez eraistea adostu baitute. Gerra Zibilean eta frankismoan errepresaliatua izan zen ELAk akordio hori akats larria dela uste du, eta elkarte memorialisten antzera, dezepzioa eta haserre adierazi ditu.

1.3. UPNrekin sekula onartuko ez ziratekeen legeak

2015etik aurrera, Nafarroako Parlamentuak hainbat lege onartu ditu, UPN botearean egon balitz eduki guztiz bestelakoa izango zuketenak; horien artean, etxebizitzari buruzko legea edo klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzkoak. Halaber, beste garai batean sekula aurrera aterako ez ziratekeen arauak onartu

dira; esate baterako, polizia-etxeetan torturatutakoak aitortzen dituen legea eta Eliza Katolikoaren barruko pederastiaren aurkakoa.

Polizia-gehiegikerien eta torturen biktimak

2019an, PSNren abstentzioarekin eta UPNren kontrako botoarekin, Nafarroako Parlamentuak eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek motibazio politikoagatik eragindako biktimak aitortu edo konpontzeko foru-legea onartu zuen. Geroago, Estatuak lege hori errekurritu zuen, eta Nafarroako autogobernua esku hartu zuen modu nabarmenean. ELAk ontzat jo zuen legea onartzea, eta bere us-tez ezinbestekoa da torturen eta tratu txarren ikerketa, aitortpena eta erreparazioa bultzatzen jarraitzea. Horretarako, ezinbestekoak dira ez errepikatzea bermatuko duten neurriak eta zigorgabetasuna gaindituko duten mekanismoak.

Ilido berean, ELAk 2015ean nabarmendu zuen Uxue Barkosek —orduan Nafarroako Gobernuako lehendakari zenak— Mikel Zabalzaren omenez egindako ekitaldian parte hartu izana. Aurtengo azaroan 40 urte beteko dira Guardia Zibilak Zabalza hil zuenetik. ELAk, oro har, aitortu nahi du haren familiak hamarkadetan zehar egia, justizia eta memoria defendatzeko egin duen borroka nekazina.

Eliza Katolikoaren barruko pederastiaren biktimak

2022an, Nafarroako Parlamentuak Estatu osoan aitzindaria izan den legea onartu zuen, UPNren kontrako botoarekin. Lege horrek aitortzen ditu Eliza Katolikoaren baitan sexu-abusuen biktima izan diren pertsonak, baita jada preskribatuta dauden kasuetan ere.

Halaber, 2024ko aurrekontuetan partida bat gorde zen Elizak immatrikulatutako herri-ondasunak berreskuratzeko beharrezko lanak finantzatzeko. Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformaren arabera, Eliza Katolikoak 1998tik hona gutxienez 35.000 ondasun immatrikulatu ditu. Horrek agerian uzten du gai hone-tan urrats irmoak egiten jarraitzea premiazkoa dela.

1.4. Skolae programa ezartzea

Lehen legealdian, Skolae programa martxan jarri zen Nafarroako ikastetxe publiko eta itunpeko guztietan. Programa honen helburua argia da: hezkuntza ikuspegi feminista txertatzea, sexismorik, matxismorik, bereizkeriarik eta indarkeriarik gabe.

Ordutik, Skolae sektore kontserbadoreen eraso mediatiko, politiko eta judizialen jomuga izan da. Hala eta guztiz ere, ELAk positibotzat jotzen du programa hau eza-rri eta mantendu izana.

2. HERRIAREN BERRESPENIK GABEKO ESTATUS POLITIKOA

la mende erdia igaro ondoren, Nafarroa da oraindik estatus politikoari buruzko herri-kontsultarik egin ez duen lurralde historiko bakarra.

Azken 40 urteetan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa (LORAFNA) hiru aldiz aldatu da: 2001ean (presidentea hautatzeko prozedura automatikoari amaiera emanez), 2010ean (hauteskunde aurreratuetan legealdia lau urtera luzatuz) eta 2024an (trafikoaren gaineko eskumenak beregatzeko). Hala ere, 1982ko jatorrizko Lege Organikoa bezala, erreforma horietako bakar bat ere ez da herri galdeketaren bidez onartu.

2.1. LORAFNA zalantzan jartzen ez duen parlamentuko ponentzia

2023ko urrian, Nafarroako Parlamentuak ponentzia bat sortu zuen LORAFNaren eguneratzea aztertzeko. Hala ere, ez dugu uste ekimen horrek Nafarroaren estatus politikoari buruzko benetako eztabaidarik zabalduko duenik, ezta emaitzak herritarrei galdetzeko aukera emango duenik ere. Izan ere, ponentziaren helburuaeguneratze posibleak "aztertzer" mugatzen da, proposamen zehatzik egin gabe.

UPNk, PSNk eta PPK dagoeneko iragarri dute estatus politikoaren edozein aldaketaren aurka agertuko direla. Horrez gain, PSNk argi utzi du ez duela onartuko euskararen zonifikazioa kentzerik. Are gehiago, LORAFNaren markoa ez da inolaz ere zalantzan jartzen PSNk, Geroa Baik eta Contigo Zurekinek 2023-27rako sinatutako programa-akordioan.

2.2. Espainiako Estatuarekin alde bikotasun faltsua

Sarri entzuten dira Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanak parekoen artekoak balira bezala aurkezten dituzten adierazpen politikoak. Errealitatea, ordea, bestelakoa da: Estatuak, bere logika zentralistan, behin eta berriz helegiteak jarri dizkie Nafarroako legeei, eskumenen inbasioa argudiatuta. Helegite horietako askok izaera sozial argia zuten legeei egin dizkio, hala nola doako osasun-arreta, koordainketa farmazeutikoa, frackingaren debekua edo polizia-indarkeriaren biktimen aitortza arautzen zutenak.

Horrez gain, LORAFNAk berak aitortzen dituen hainbat eskumen oraindik ez dira transferituak izan. Trafikoaren eskumenaren kasua bereziki adierazgarria da: Nafarroak historikoki bere gain izan zuen eskumena frankismo garaian usurpatua izan zen, eta nahiz eta Foru Hobekuntzak aitortzen duen, ez zen sekula transferitu. Azkenean, 2022an berreskuratu zen, baina ez Espainiako Gobernuarekin adostutako aldebiko negoziazio baten bidez, baizik eta 2018ko martxoko Auzitegi Gorenaren epai batek Estatua transferentzia egitera behartu zuelako.

2.3. Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren gaineko eskumenak autogobernua aurrera egitea dakar

ELA, LAB, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuok ekimen bateratua abiatu dugu Nafarroak bere gain har dezan Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LGS) finkatzeko eskumena. Neurri honek mesede zuzena ekarriko lieke lan-munduan egoera prekarioenak pairatzen dituzten pertsonen. Era berean, aurrerapauso garrantzitsua izango litzateke autogobernua eta berdintasunean, soldata-arrakalak murrizten lagunduko lukeelako, bai generoaren bai jatorriaren arabera sortutakoak. Hartara, egiturazko prekarietateari aurre egiteko eta oinarritzko eskubideak (etxebizitza, zaintza...) modu bidezkoagoan bermatzeko aukerak hobetuko lirateke.

Nafarroako Gobernuak, UGTk, CC.OO.k eta patronalak, ordea, zoritxarrez, proposamena baztertu dute. Edozein kasutan, sindikatu sustatzaileok sinadura-bilketa abiatu dugu ekimena Parlamentura eramateko, eta Nafarroak LGS finkatzeko eskumena bere gain har dezan lortzeko.

3. 40 URTEZ EZARRITAKO EUSKARAREN AURKAKO HIZKUNTZA-POLITIKARI BUELTA EMATEKO EZINTASUNA

Azken hamarkadan, Nafarroako euskararen inguruan garatutako politika instituzionala ezinbestean aztertu behar da jasotako ondarearen argitan: UPNren eta PSNren gobernuek, bata bestearen ondoren, euskara sistematikoki jazarri eta baztertu dute, eta hori izan da haien ekintza politikoaren ezaugarri nagusietako bat.

Hala ere, azken 10 urteotan aurrerapauso batzuk lortu dira: euskararen presentzia handiagoa da kalean zein erakundeetan; zona mistoa ia 50 udalerritarra zabaldu da; D eredia Nafarroa osoan ezartzeko aukera dago; euskararen aldeko erakundeak jazarri eta ekonomikoki itotzeari utzi zaio; eta helduen artean euskara ikasteko aukerak sustatu dira.

3.1. Euskarari buruzko lege diskriminatzaileak indarrean eta hizkuntza-politika erabat eskasa

Urratsak eman badira ere, balantzea ez da nahikoa. Hizkuntza-eskubideak oraindik ez daude bermatuta, eta zonifikazioak zuzenean erasotzen dio berdintasunari. Zonifikazioa LORAFNAtik (1982) eta Euskararen Legetik (1986) dator, gaur egungo errealitate soziolinguistikoarekiko erabat zaharkituta dauden lege-esparruetatik.

Marko horrek egoera absurdoak betikitzen ditu: zenbait lan-deialditan ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren ezagutza baloratzen da, baina euskararena ez. Premiazkoa da, beraz, Nafarroa osoan euskaldunen oinarritzko hizkuntza-eskubideak bermatuko dituen ofizialtasuna ezartzea, garapen mailakatu eta erritmo desberdinekin bada ere.

Azken azterlanek erakusten dute euskararen egoera larria dela, eta desagertzeko arriskua ere baduela. Hala eta guztiz ere, ez Gobernuak, ez udal gehienek ez dute beharrezko bultzadarik eman. Euskaraz dakitenen proportzioa ia ez da aldatu UPNren garaietatik: 2015ean %25 zen; 2025ean, berriz, %26,7 besterik ez. Era berean, D ereduko matrikulazioa ez da ia handitu.

Euskararen aldeko kolektibo eta herritarren antzera, ELA ere frustratuta dago: aurrerapausoak ez dira inondik inora nahikoak izan, are gutxiago Barkosen gobernu garaian, PSNren botoa beharrezkoa ez zenean.

PSNren jarrera, gainera, ez da aldatu azken hamarkadan. 2018ko ekainean, Gobernuko hainbat goi-kargudunek —gaur egungo Hezkuntza kontseilaria barne— euskararen aurka eskuin muturrak antolatutako manifestazioan parte hartu zuten. Eta 2025eko otsailean, PSNk UPN, PP eta Voxekin batera bozkatu zuen PAI programak martxan jarraitzea ziurtatzeko. Barcinak sortu zuen PAI, euskara zokoratzeko, beste hizkuntza batzuk sustatzearen aitzakia pean.

Hezkuntza Departamentuak, gainera, oztopoak jartzen ditu D ereduko lerro berriak zabaltzeko, batez ere Erriberan. Aitzitik, erabakitasunez ari da PAI indartu eta zabaltzen: irakasle talde berezia sortu du Nafarroan, eta Arartekoaren gomen-dioei ere entzungor egin die, ingelesezko orduak handitu dituelako D-PAI erudian. Laburbilduz: dena da baliozkoa PAI hedatzeko, baina euskararekin trabak eta atzerapenak dira nagusi.

Emaitza argia da: 11 parlamentari besterik ez dituen PSNk bere hizkuntza-politika inposatzea lortu du.

3.2. Administrazioan euskararen erabilerari buruzko dekretua: hizkuntza-eskubideak bermatu gabe

2017an, Uxue Barkosen gobernuak 103/2017 Foru Dekretua onartu zuen, administrazioan euskararen erabilera arautzen zuena. ELA izan zen dekretua babestu zuen sindikatu bakarra: nahikoa izan ez arren, euskararen erabilera normalizatzeko aurrerapauso garrantzitsua zelako.

Baina 2019an, UGTk eta AFAPNAk aurkeztutako errekurso baten ondorioz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak dekretuaren hainbat artikulua baliogabetu zituen. Gobernuak ez zuen epaiaren aurkako helegiterik jarri, eta ELAk erabaki hori irmoki kritikatu zuen.

2024an, Maria Chivite presidente zela, administrazioan euskararen erabilerari buruzko dekretu berria onartu zen. Dekretu hau, zenbait puntutan, UPNk 2009an onartutakoaren aldean ere atzerapausoa izan da. ELAk kontrako botoa eman zuen, ez dituelako herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzen. Atzerapauso nabarmenenak hauek dira:

- Euskara ez da jada meritua eremu ez-euskaldunean; aitzitik, ingelesa, frantsesa eta alemana meritua moduan balora daitezke.

- Zerbitzu nagusiak desagertu dira, Nafarroa osoko biztanleak artatzen zituztenak, alegia.
- Udal autonomiari eraso egiten dio: eremu mistoko udalek euskarari balioa emateko aukera mugatua dute; dekretu berriarekin gehienez %2,1ra arte puntua dezakete meritu gisa, lehen egoki zeritzoten haztaperen edo ponderazioa eman ziezaioketenean.
- Euskararen gutxieneko balioa desagertu egin da eremu mistoko lanpostuetan.
- Osasunbideako lanpostuetan, balio generikoa ezabatu da, eta departamentu bakoitzaren esku utzi da zein lanpostutan hartuko den euskararen ezagutza kontuan.

Diskrezionalitate horrek atea ireki die hizkuntza-eskubideak are gehiago ahultzen dituzten interpretazio murriztaile eta arbitrarioei. Horregatik, ELAk eta Steilasek errekurtsua aurkeztu zuten 2025eko urtarrilean, eta epaiaren zain daude oraindik.

4. ABERASTASUNAREN BANAKETA ETA EKITATE SOZIALA EZ DA LEHENETSI

4.1. Pobrezia eta desberdintasun soziala handitu dira, aberastasuna handitu den bitartean

2015 eta 2024 artean, Nafarroako pobrezia-arrisku tasa %13,9tik %18,3ra igo da. Gaur egun, ia bost pertsonatik bat pobrezia-mugatik behera bizi da. Egoera horrek inpaktu bereziki larria du emakumeengan —pobrezia-tasa gizonena baino bi puntu handiagoa baita— eta herritar migratuengan. Gainera, lurralde-arrakala ere gero eta nabarmenagoa da: pobrezia-tasa altuenak Erriberan aurkitzen dira.

Desberdintasun sozialak ere gora egin du. Gini koefizientea¹ 26,2 zen 2015ean, eta 30,7ra iritsi da 2024an.

Desberdintasun sozialen okertze hau, BPGa %41,5 eta enplegua %20,1 hazi diren epe berean eman da. 2015ean 264.000 pertsonen zuten enplegua; 2024an, berriz, 319.000k.

Ondorioa argia da: aberastasuna handitu bada ere, modu bidegabean banatu da, eta horrek pobrezia eta desberdintasuna areagotzea ekarri du. Aberastasun osoa handitzen bada, baina aldi berean gero eta pertsona gehiagok ezin badute hilabete amaierara iritsi, aberastasuna gutxiengo baten eskuetan pilatzen ari delako da.

Pobrezia-tasak are gogorragoak dira herritar migratuentzat: azken inkestaren arabera, atzerritar jatorriko pertsonen %39,5 pobrezia larrian bizi dira; bertako herritarren artean, aldiz, %7,9 dira.

Azken batean, aberastasuna banatzea ez da lehentasun politikoa izan UPNren ezkerretara dauden alderdientzat.

Deskribaturiko egoera hau azaltzen duten faktore nagusiak hauek dira:

- Eros-ahalmena galtzea: 2015etik KPIa %23,5 igo da; etxebizitzaren prezioa %46,4; eta elikagaiena %41,8. Oinarrizko produktuen garestitzeak bereziki gogor kolpatzen ditu errenta txikiak.

¹ Gini koefizientea gizarte desberdintasuna ebaluatzeko balio duen adierazlea da, 0a erabateko berdintasuna izanik, eta 100 erabateko desberdintasuna.

- Enplegu prekarioa: enplegua handitu arren, behin-behinekotasuna eta prekarietatea oso altuak dira oraindik, bereziki emakumeen artean.
- Pertsona migratuen lan-prekarietatea: biztanleria aktiboaren hazkundera batez ere herritar migratuei zor zaie (hazkunde osoaren erdia baino gehiago dira), baina, aldi berean, baldintza askoz prekarioagoak jasaten dituzte.

4.2. Aurrekontu-politika neoliberala

2015az geroztik, hamar aurrekontu onartu dira UPNren ezkerretara kokatzen diren alderdien babesarekin. Chivite presidente zela onartutako sei aurrekontuak PSN, Geroa Bai, Contigo Zurekin eta EH Bilduren artean adostu ziren, eta kasu guztietan eredu bera errepikatu da:

- Aurrekontu osoaren aldean, oso kopuru txikia bideratzen da EH Bilduk proposatutako partidetara; ia inoiz ez du gainditzen aurrekontu osoaren %1a.
- Azterlanak egitea edo lantaldeak sortzea adosten da, baina Gobernuak ez du konpromiso zehatzik hartzen.
- Adierazpen orokor eta lausoak erabiltzen dira, benetako konpromisorik hartu gabe. Adibide argigarria da zahar egoitzetako hitzarmenaren negoziazioaren harira 2025eko aurrekontuetan jasotakoa. Hitzarmen propiorik gabeko sektore feminizatua dela kontuan izanik, zera adierazten da: "Gobernuak hitzarmenaren negoziazioan duen inplikazioa areagotzeko konpromisoa hartzen du". Horrelako konpromiso hutsalek nagusiki emakumeek egiten duten zaintza-lanaren gutxiespena bere horretan mantendu besterik ez dute egiten.

Azken batean, eredu honek arazoei heltzen zaienaren itxura ematen du, benetako borondate politiko eza estaltzen du eta ez du aldaketa sakonik eragiten.

Zerga-arauen menpeko aurrekontuak

Barkosen zein Chiviteren gobernuetan, aurrekontu-politika zerga-arauen menpe egon da.


Zehazki, arauak hiru mekanismoren bidez baldintzatzen dituzte aurrekontuak: defizitaren muga, zorraren muga eta gastu-araua (hau da, inbertsio publikoaren igoera mugatzen duena, egoera ekonomikoa edozein izanik ere). Dinamika horren ondorioz, urtez urte aberastasunaren gero eta zati txikiagoa bideratzen da erakunde bakoitzaren eskumenetara. Nafarroako Gobernuaren kasuan, horrek aurrekon-

tuen igoerari oso tarte txikia uztea esan nahi du, eta, ondorioz, gizartearen premiei erantzuteko gaitasuna oztopatzen da, osasungintza, hezkuntza edo etxebizitza bezalako arloetan.

Egia da zerga-arau horiek 2020tik 2023ra bitarte eten egin zirela, baina 2024an berriro ezarri ziren, oraingoan EH Bildu eta EAJk, Sanchezen gobernuaren sostengatzen duten gainerako alderdiekin batera, Espainiako Kongresuan emandako babesari esker.

1.200 milioi eurotik gorako superabita hamar urtean

2015etik gaur arte, gobernuak 1.232,5 milioi euro gastatu gabe utzi dituzte, nahiz eta osasungintzan, etxebizitzan eta zaintzan gabeziak gero eta handiagoak izan, eta pobrezia areagotu. Superabit politikak horrek argi uzten du gizartearen premiei ez zaiela lehentasuna eman.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Gizartearen partaidetzarik ez

Aurrekontuen aurreproiektua oraindik ere herritarren eta sindikatuen parte-hartzerik gabe egiten da. Azken hamarkadako gobernuak UPNren eredua errepikatu dute, gizartearen inplikazio handiagoaren beharra alde batera utziz.

Aurrekontuen 10 eurotik bat zorrera eta itzalpeko bidesarietara

Itzalpeko bidesarien eredua UPNren gobernuak bultzatu zuten: azpiegitura-lanak enpresa pribatuen esku uzten ziren, eta lanak zuzenean ordaindu beharrean,

urteko kanon baten bidez finantzatzen ziren kontzesioak irauten zuen bitartean. Kontuen Ganberak berak zalantzan jarri duen eredia da, Foru Erkidegoko kontuei kalte nabarmena eragin dielako.


2008tik hona, zorra eta itzalpeko bidesarien ordainketak 7.492,3 milioi euro irentsi dituzte. 2015ean aurrekontuaren %1,6 ziren, eta 2025ean %9,2ra iritsiko direla aurreikusten da.

Europako osasungintza eta hezkuntzako batezbesteko inbertsioa baino 900 milioi euro gutxiago

Eurostaten azken datuen arabera (2023), Nafarroan osasungintza inbertsioa BPGaren %5,5 ingurukoa da, Europako batezbestekoa baino askoz txikiagoa (%7,3). Tarte honek esan nahi du gurean urtean Europako batz-betekoa baino 500 milioi euro gutxiago bideratzen direla osasun-sistemara. Europako mailara iristeko, osasungintzako aurrekontua %33,2 handitu beharko litzateke.

Inbertsio eskas horren ondorioak argiak dira: itxaron-zerrendak gero eta luzeagoak dira eta lehen arretako zentro askok atek itxi behar izan dituzte.


2014tik hona, osasungintza inbertsioa BPGaren 0,4 puntu handitu da, baina nabarmen gehiago Osasunbidearen jardura. Aipatutako aldian, Nafarroako biztanleria %6,7 handitu da; medikuntza orokorreko kontsultak %9,8 gehitu dira (2023ra arteko azken datuen arabera); eta erizaintzako kontsultak %10,3 igo dira (2023ra arte, halaber).



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuak oinarri hartuta.

Hezkuntzan egindako inbertsioa ere Europako testuinguruan kokatuta, antzeko ondorioak atera daitezke. 2023an, Nafarroan hezkuntza inbertsioa BPGaren %3,2 izan zen, eta European, berriz, %4,7. Horrek esan nahi du European 416,4 milioi euro gehiago inbertitzen direla, hau da, Nafarroan 2025erako aurreikusitakoa baino %40,6 gehiago.

Zehazki, 2025ean hezkuntzako aurrekontua 914,9 milioi eurokoa izango da, BPGaren %3,7. 2014az geroztik inbertsioa BPGaren 0,6 puntu handitu bada ere, igoera hori ez da nahikoa hezkuntza-sistemaren gabezia estrukturalak konpontzeko.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta Nastaten datuak oinarri hartuta.

Errenta Bermatua %37 handitu beharko litzateke Lanbide Arteko Gutxiene-ko Soldataren erreferentzia berreskuratzeko


UPNk gobernua utzi ondoren ezarritako murrizketa sozial nagusietako bat 2016an gauzatu zen: Errenta Bermatua sortu zen, aurreko Gizarteratze-Errentaren ordezt. Une horretan, prestazioa kalkulatzeko Lanbide Arteko Gutxiene-ko Soldataren (LGS) erreferentzia kendu egin zen, eta haren ordezt 600 euroko zenbateko finkoa ezarri zen.

Ondoriozt, azken urteotan LGS igo den heinean, Errenta Bermatuak gero eta balio erlatibo txikiagoa izan du. 2025ean, prestazioaren oinarritzko zenbatekoa 790,28 euro da, eta LGS 1.084 euro. Bi prestazioen arteko lotura hautsi izanak Errenta Bermatuaren eros-ahalmena nabarmen murriztu du. Egoera horri buelta emateko eta Errenta Bermatua LGSaren pare jartzeko, prestazioa %37 handitu beharko litzateke.

Atzerapen horrek, gainera, genero-arrakala areagotu du, Errenta Bermatua gehienbat kolektibo zaurgarriek jasotzen baitute: lanaldi partzialeko emakume langileek, ama bakarreko familiekt, emakume pentsiodunek, eta abarrek.

Horrez gain, nahiz eta onuradunen kopurua handitu, prestazioa ez da oraindik iristen behar duten guztiengana. 2024an, 16.758 familia-unitatek jaso zuten Errenta Bermatua, guztira 36.249 pertsonak (biztanleriaren %5,1). Horien artean, %53,8 emakumeak ziren, eta %38,3 adingabeak.

Errenta Bermatuaren oinarrizko kopuruaren (pertsona bakarreko familia unitatea) eta LGSren bilakaera 2016-25



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren eta BOEko datuak oinarri hartuta.

4.3. Sanzen eta Barcinaren garaiko fiskalitate bera

UPNren gustuko zerga-politika

UPNren eta PSNren gobernuetan ezarritako zerga-sistema ez zen nahikoa, bidegabea zen eta, gainera, permisiboa zen kapital-errentetako zerga-iruzurrarekin. Zoritxarrez, azken 10 urteotan fiskalitatea ez da leheneratu.

Gaur egun, ia UPNren garaiko zerga-sistema bera dugu. Horren froga argia 2023ko zerga-erreforma izan zen: Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) eta EH Bilduk babestu zuten. UPNk berak iragarri zuen erreformaren alde bozkatuko zuela, “oso positiboa” iruditu baitzitzaion Nafarroako Gobernuaren eta EH Bilduren arteko akordioa. Javier Esparzak berak adierazi zuen “oso pozik” zegoela, Gobernuaren zerga-erreforma “bide onean zihoalako”. Azken orduan, PSNk eta EH Bilduk Iruñeko Udalean adostutako zentsura-mozioaren ondorioz, UPNk botoa aldatzea erabaki zuen. Baina horrek ezin du ezeztatzen erreforma hori, funtsean, UPNren gustukoa zenik.

Zerga-presioa Europako batezbestekoa baino 2.000 milioi euro txikiagoa da

Zerga-presioak erakusten du zein den administrazio publikoek jasotzen dituzten diru-sarreraren (zergak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta udalen zerga-bilketa barne) eta BPGaren arteko erlazioa. Alegia, administrazio publikoek ekonomia-ren zenbateko zatia jasotzen duten adierazten du.

Europar Batasuneko azken datuen arabera (2022), zerga-presioa EB-27an %40,2 izan zen. Nafarroan, berriz, %33,7koa. Bi kasuen artean 6,5 puntuko aldea dago, eta horrek esan nahi du 2022an Nafarroak EB-27ko batez besteko maila bera izan balu, 2.022,8 milioi euro gehiago bilduko zituzkela.

Langile-klaseak darama oraindik zerga-bilketaren zama: enpresariak beren irabaziengatik baino lau bider gehiago ordaintzen dute langileek beren soldatagatik

Iruditeria kolektiboan sarri errepikatzen den ideia da enpresak direla diru-kutxa publikoen sostengu nagusia. Baina errealitateak eta datuek kontrakoa erakusten dute: soldatapeko langileek ia lau aldiz gehiago ordaintzen dute beren soldaten-gatik, enpresariak beren irabaziengatik baino.

Horren ondorioz, Nafarroako zerga-bilketaren oinarri nagusiak lan-errentak eta kontsumoaren gaineko zergak dira. Zerga-bilketaren %77,5 (4.208,8 milioi euro) langileen zergen bidez lortzen da, batez ere nominen atxikipenen eta BEZaren bidez. Alegia, hamar urte igaro eta beren burua progresistatzat duten gobernua izan arren, lan-errenten eta BEZaren pisua 6,7 puntu handitu da zerga-bilketan.

Patronalaren pribilegioak ez dira zalantzan jarri

Urte hauetan gobernuek bere horretan mantendu dituzte errenta handien eta kapitalaren zerga-pribilegioak. Are gehiago, enpresen Ondarearen gaineko Zergan enpresen ondasun eta eskubideak zergak ordaintzetik salbuetsi egin ditu.

Azken hamarkadan, Gobernua eta patronalaren interesak etenik gabe lerrokatu-ta egon dira. Pandemiaren garaian ere, Nafarroako Gobernuak patronalaren alde egin zuen, Espainiako Gobernuari oinarritzko jardueratzat jotzen ez ziren enpre-sak ez gelditzeko eskatu baitzion. Aldi berean, Nafarroako Gobernuak, Sodena sozietate publikoak, CEN patronalak eta Albyn Medical enpresak akordio bat sinatu zuten, ia bi milioi euroko eragiketa batean: azkenean, 1,7 milioi musuko biltegitratuta gelditu ziren, erabili gabe. Akordio hori elkarlan publiko-pribatuaren adibide arrakastatsutzat aurkeztu zuten; praktikan, ordea, patronalak, pande-miaren unerik latzenetan, negozioa egiteko erabili zuen estrategia ezkututzen du.

Europako eta espainiar estatuko azkenetakoak enpresa irabazien gaineko zergen ordainketan

Merkataritza-ganberek Ekonomialarien Kontseilu Nagusiarekin batera egindako txosten baten arabera, Nafarroa da zerga-presio txikieneko autonomia-erkidegoa Estatuan, Kanarien atzetik. Garai hartan Nafarroako Gobernuko bozeramailea zen Javier Remírez pozik agertu zen jendaurrean txostenaren emaitzekin.

2022an, Sozietateen gaineko Zergaren bidez bildutakoa EB-27ko BPGaren %2,66 izan zen batez beste; Nafarroan, berriz, %1,24 baino ez. Zerga-tasa baxuak eta zerga-iruzur maila altuak direla medio, Nafarroako presioa Europako azkenetako bat izan zen: soilik Hungaria eta Letoniaren aurretik.

2024an, Sozietateen gaineko Zergaren bidez bildutako diru-kopurua 2007an, krisi ekonomiko aurretik, jasotakoa baino txikiagoa izan zen. Ordutik, zerga horrek BPGean izan duen pisua %3,2tik %1,8ra jaitsi da, hau da, 93,2 milioi euro gutxiago (%18,6ko beherakada). Kontrara, lan-errenten bidezko zerga-bilketa %104,5 igo da aldi berean.

Enpresen Ondarearen gaineko Zerga kendu da

Nahiz eta datuek argi erakusten duten Nafarroako zerga-sistema ez dela nahikoa eta bidegabeta dela, azken 10 urteotan hartu den zerga-neurrietako bat Ondarearen gaineko Zergan enpresen ondasunen eta eskubideen gaineko zerga kentzea izan da. Maria Chiviteren lehen gobernuan hartu zen erabaki hori, eta Nafarroako patronalak begi onez hartu zuen.

Zerga hori ezerezean uztearen ondorioz, gaur egun biztanleriaren %1i soilik eragiten dio (2023an 7.292 pertsonari, azken datu eskuragarrien arabera), eta soilik 44 pertsonak ordaintzen dituzte tarte altueneko zergak. Ondorioz, zerga honen bidez biltzen dena hutsaren hurrengo bihurtu da, 2014koa baino ere txikiagoa: 2024an, duela hamar urte baino 5,1 milioi euro gutxiago bildu ziren.

Enpresen eta enpresa-errenten zerga-iruzurra

Nafarroako zerga-sistemaren beste ezaugarri nagusietako bat zerga-iruzur handia da. Horri laguntzen dio, besteak beste, ikuskari gutxi izateak; eta hori ez da kasualitatea, administrazioak hartutako erabaki kontzientea baizik, enpresen eta enpresa-errenten zerga-iruzurra errazteko.

Hori islatzen duen adierazleetako bat da enpresa-errenten PFEZren aitortpena. 2023an (azken datu eskuragarriak), lan-errenten ondorioz aitortutako batez besteko errenta 25.325 eurokoa izan zen; enpresa-jarduerak aitortutakoa, berriz,

12.491 euro. Hau da, lanaren errenta garbia enpresa-errentena baino 12.834 euro handiagoa izan zen.

Beste adierazle esanguratsu bat Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenetan aurki daiteke. 2023an, 20.063 enpresa eta sozietatek egin behar izan zuten aitorpena; horietatik 8.104k (%40,4) emaitza zero aurkeztu zuten, eta 4.168k (%20,8) galerak izan zituztela adierazi zuten. Alegia, enpresen eta gainerako sozietateen %61,2k esan zuten ez zuela ezer irabazi edo galerak izan zituela.

4.4. Etxebizitza: bermaturik ez dagoen eta gero eta zailagoa den eskubidea

Legeria merkatuaren logikaren baitan dago eta ez du eskubidea bermatzen

Azken hamarkadan Nafarroan garatutako etxebizitza-politikak merkatuaren logikaren barruan mugitu dira. 2010eko Etxebizitza izateko eskubideari buruzko Legean, arreta etxebizitza babestuei jarri zitzaion, baina neurri asko eztabaidagarriak izan ziren: babesaren 30 urteko muga, eraikuntza-enpresei mesede egiten zieten bi kategoria berri (babes ofizialeko etxebizitzak eta tasatuak), eta esleitzeko irizpide murriztaileagoak, premia handiena zuten pertsonak bazter uzten zituztenak. Horrez gain, hutsik zeuden etxebizitzak merkatuko prezioetan alokatzea bultzatu zen, etxebizitza duin baterako eskubidea benetan bermatu gabe.

2012ko dekretuak ez zituen gabezia horiek zuzendu: laguntzak aurrekontuen araberakoak izaten jarraitu zuen eta babes-erregimenaren 30 urteko muga mantendu zen.

2018an, Etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen Foru Legeak lehen aldiz aitortu zuen erroladatutako pertsona orok etxebizitza egokia izateko eskubidea duela. Hala ere, aplikatutako neurriak —emantzipaziorako zerga-kenkariak, kasurako— ez ziren eraginkorrak izan: alokairua garestitu zuten eta, azken batean, jabeek egin zieten mesede nagusiki.

2022ko Foru Legeak aurrerapen garrantzitsua ekarri zuen: etxebizitza babestuen kalifikazio iraunkorra ezarri zuen. Halaber, alokairuen erregistro bat sortu zen tentsiopean dauden eremuak identifikatzeko, gazteentzako laguntzak zabaltzeko ziren eta gehieneko alokairua ezarri zen eremu horietan, nahiz eta praktikan ez zen aplikatu.


Azkenik, 2025eko 09/2025 Foru Legeak etxebizitza eskuragarri izateko eskubidea aitortu zuen, esleipen-kupoak finkatu zituen (%80 zozketa bidez eta %20 kolektibo zaurgarrientzat), datuen erregistroak sortu zituen (edukitzailer handiak, alokairu-kontratuak), etxebizitza kooperatiboa sustatu zuen eta 21

udalerrri tentsiopeko eremu gisa izendatu zituen, prezioen kontrola ezartzeko helburuarekin.

Nahiz eta aurrerapausoak eman diren, legeriak ez du oraindik hautsi eredu publiko-pribatua eta ez du eraginkortasunez bermatzen etxebizitza duin eta eskurgarria izateko eskubidea.

Prezioen igoerak gazteek, emakumeek eta pertsona migratuek etxebizitza izatea oztopatzen du


Etxebizitza da Nafarroako herritarren arazo nagusietako bat, eta ez da harritzekoa, salerosketaren eta alokairuaren prezioen bilakaera ikusita. Salerosketaren prezioak 2015etik etengabe eta era kezkagarrian egin du gora (pandemiaren urteetan izan ezik)



Alokairuaren prezioak nabarmen garestitu dira Nafarroan. Idealista higiezin atariaren arabera, 2015aren hasieran m² bakoitzaren prezioa 6,3 euro zen hilean; 2025aren hasieran, berriz, 10,5 euro izatera iritsi da, %65etik gorako igoera. Iruñean prezioa are altuagoa izan da: 2015ean 6,9 eurokoa zen, eta 2025ean 11,1 eurokoa, hau da, %60ko igoera.

Nafarroako Gobernuak berak identifikatu zituen tentsio-eremu izateko baldintzak betetzen zituzten 21 udalerrriak, eta argitaratutako datuek erakusten dutenez, egoera guztiz sostengaezina da.

Tentsiodun izandaturiko udalerrietako etxebizitza prezioen ehunekoa (2018-23)



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Prezioen bilakaerak herritar guztiei zaildu die etxebizitza eskuratzea, baina bereziki kaltetzen ditu prekaritate handiagoa pairatzen dutenak: emakumeak, migratutako pertsonak eta gazteak.

Inbertsio publikoa ez da inondik inora nahikoa

Etxebizitzan egiten den inbertsio publikoak eskasa izaten jarraitzen du, hipotekak eta alokairuek izan duten garestitzea kontuan hartuta. Egoera horrek herritar ugari utzi ditu oinarritzko eskubide horretatik kanpo.


2025ean, etxebizitzara bideratutako aurrekontu arrunta 73,7 milioi eurokoa izango da, hau da, aurrekontu osoaren %1,17 eta BPGaren %0,27 baino ez.

2014an, aurrekontua 51,4 milioi eurokoa izan zen (aurrekontuaren %1,3 eta BPGaren %0,28). Horrek esan nahi du azken hamarkadan ahalegin publikoa txikitu egin dela, bai aurrekontu orokorrarekin alderatuta, bai BPGarekin konparatuta.

Ondorioz, gaur egungo etxebizitza inbertsio publikoa ez da nahikoa Nafarroako herritar guztiei etxebizitza duina izateko eskubidea bermatzeko.

Etxebizitzaren parke publikoa urria


2022ra arte, etxebizitza babestuek 30 urtez soilik mantentzen zuten babes-izae-
ra. Ondorioz, ia 60.000 etxebizitza publikotik 29.830 inguru merkatu librera igaro
dira. 2022a baino lehen eraikitako etxebizitza guztiek bide berari jarraituko diote,
eta horrek hainbat hamarkadatan egindako inbertsio publikoa xahutzea ekarriko
du.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Alokairu babestuaren pisua oso txikia da: parke babestuaren %9,5 baino ez, eta Nafarroako etxebizitza guztien %1,6. Gainera, mota horretako etxebizitzek ere denborarekin kalifikazioa galtzen dute. Aldi berean, eskaria etengabe ari da haz-
ten: 2015ean 4.778 pertsonak eskatzen zuten etxebizitza babestua, eta 2023an 17.530ek (halako hiru). Eskatzaileen gehiengoak (%65) alokairua eskatzen du, eta emakumeak gizonak baino gehiago dira modalitate guztietan.

Eroste eta alokairu etxebizitza eskaeraren bilakaera (2011-2023)



Iturria: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

Azken urteotan, premiazoak ziren etxebizitzari buruzko legeetan aldaketak egin dira Nafarroan, izan ere aurreko legeek ez baitzuten eskubide hori aitortzen. 2022ra arte, etxebizitza babestuek ez zuten kalifikazio iraunkorrik, eta horrek parke publikoa larriki ahuldu zuen.

2025ean onartutako neurriek bizitoki-krisiari erantzutea dute helburu, baina abiapuntu mugatua dute (Estatuko legea), eta Nafarroan eragin txikia izango du, etxebizitza-edukitzaile handiak gutxi direlako. Gainera, araudiak merkatuaren logikari eusten dio, ez die errentadunei kontrol-neurririk ezartzen eta etxebizitza ez du benetako eskubide gisa aitortzen.

Horri gehitu behar zaio inbertsio publiko eskasa: parke babestua mugatuta dago eta interes pribatuen menpe. Beraz, nahiz eta azken urteotan aurrerapenak egin diren, Nafarroan oraindik ez da bermatzen etxebizitza duin eta eskuragarria izateko eskubidea.

4.5. Banku publikorik ez

CAN desagertu zenetik, Nafarroak bere finantza-tresna nagusia galdu du. UPN-ren gobernuen eskuetan, 1.500 milioi euroko balioa zuen erakundea 150 milioira murriztu zen, ustelkeri eta dieten eskandaluen artean. Gogoratu behar da CANen administrazio-kontseiluan ordezkatuta zegoela korrallito foral osoa: UPN eta PSN-ko buruzagiak, patronala, UGT eta CC.OO.

CAN itxi ondoren, ez da beste finantza-erakunde publikorik sortu Nafarroan, eta gaur egun herritarrak finantza-entitate pribatuen interesen menpe daude.

ELAk behin eta berriz azpimarratu du banku publiko baten beharra. Halako era-kunde batek ez lituzke finantza-espekulazioa eta onura pribatuak elikatu behar eta gizartearen zerbitzura egongo den tresna burujabea beharko luke. Banku publiko horrek gai izan beharko luke proiektu estrategikoak finantzatzeko, familiei eta enpresa txikiei kreditua bermatzeko, eta baliabideak herritarren oinarrizko premieta-ra bideratzeko, bereziki kolektibo zaurgarrienei laguntzeko.

4.6. Industria-politikarik ez

ELAn kezkatuta gaude Nafarroako Gobernuak industria-politikarik ez duelako. Orain arte, Gobernuak egin duen proposamen bakarra enpresek gero eta zerga gutxiago ordaintzea izan da. Horren adibide garbia dira Maria Chivite presidenteak harrotasunez egindako adierazpenak: "Sei enpresatik bostek zerga gutxiago ordaintzen dituzte Nafarroan Estatuan baino".

Industria-politikarik ez egoteak multinazionalen mende uzten gaitu. Enpresa horiek kanpoan hartzen dituzte erabaki nagusiak, eta ez dute zalantzarik deslokalizazioak egiteko, milaka langile lanik gabe utzita. Horri gehitu behar zaio Estatuko hitzarmenak aplikatzeak (barazki-kontserbak, industria kimikoa...) edo azpikontra-tatutako langileen subrogazioa ez bermatzeak prekariatatera kondentatzen dituela Nafarroako langile asko.

2025ean, Nafarroako Gobernua industriari buruzko legea sustatzen ari da Parlamentuan. Horretarako, foro bat ireki zuen, sindikatu eta patronal guztiak gonbidatuta. Hasiera-hasieratik argi genuen ELAn lege horren helburua enpresen pribilegioak sendotzea zela. Foro horretan parte hartu ez duen sindikatu bakarra izan gara. Duela gutxi, Gobernuak foroaren ondorioak aurkeztu ditu: patronalaren proposamenak soilik bildu dira, eta Nafarroako langileen lan-baldintzak hobetzea ekarriko luketen neurri guztiak baztertu egin dira.

Bestalde, gogoratu behar da Geroa Baik, EH Bilduk, Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrek 2015ean sinatutako programa-akordioan jasota zegoela igande eta jaiegunetan saltokiak ez irekitzea defendatuko zutela. Baina hamar urte hauetan ez da inolako aurrerapausorik eman norabide horretan.

4.7. Esleipen publikoak susmopean

PSOeko antolaketa-idazkari Santos Cerdán atxilotua izan zenetik, argitara atera dira Nafarroako Gobernuak Servinabarri esleitutako obra publikoetan izandako irregulartasun larriak. Gutxienez 2015era arte egiten dira atzera esleipen horiek, eta sakon ikertu beharko lirateke, erantzukizun politiko guztiak argitu eta garbitzeko.

Kezkagarriena da amarru horrek zuzenean Nafarroako Gobernuari eragiten diola. Gainera, enpresariak ere inplikaturik daude. Horrek agerian uzten du kontratazio publikoko sistemak berrikusteko premia: praktikan onura pribaturako diseinatuta daude.

Horrelakorik berriz gerta ez dadin, ondorio politiko argiak atera behar dira, eta mekanismo sendoak ezarri. Besteak beste, ustelkeria-kasuetan parte hartu duten enpresek eta enpresariak etorkizuneko lehiaketa publikoetan parte hartzea eragotzi behar da.

5. SEKTORE PUBLIKOA MADRILEN MENDE, PREKARIZATURIK ETA %47RAINO IRITSI DEN BEHIN-BEHINEKOTASUNAREKIN

5.1. Sektore publikoko behin-behinekotasuna %38tik %47ra igo da

Behin-behinekotasuna administrazioaren arazo nagusietako bat da: langileen bizi-proiektuetan eragin zuzena du eta zerbitzu publikoen kalitatea ahultzen du. Gainera, pribatizazioaren lehen urratsa da, egonkortasunik gabeko lanpostuak edozein unetan amortizatu baitaitezke.

Kontuen Ganberak Nafarroako 2023ko kontu orokorreari buruz argitaratutako azken txostenaren arabera, behin-behinekotasun-tasa %47koa da. 2016tik hona, erakunde horrek behin eta berriz ohartarazi du tasa hori neurrigabea eta kezkarria dela. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez dio arazoari aurre egin, eta azken hamarkadan egoera larriagotu egin da: 2015ean tasa %38 zen, eta hamar urte geroago %47ra iritsi da.

5.2. Eros-ahalmenaren galera

Nafarroako Gobernuak ez du inolako borondate politikorik erakutsi enplegatu publikoek azken hamarkadan galdu duten eros-ahalmena konpentsatzeko. Gobernuaren erantzun-ezaren aurrean, sektoreka mobilizazioak abiatu dira: irakasleak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, 0-3 urteko haurrekin ari diren langileak, karrera profesionala kobratzen ez zuten Osasunbideko langileak, suhiltzaileak, ogasuneko langileak...

Borroka horietako batzuek frogatu dute presio soziala handitzen denean administrazioak baduela soldata ikotzeko aukera, Estatuak ezartzen duen mugaz harago. Horretarako, soldata-osagarriak erabil daitezke, hala nola produktibitate-osagarria.

5.3. Madrilen mende eta autogobernua gainbeheran

Behin-behinekotasuna eta erosahalmenaren galera areagotu ahala, Nafarroako gobernuek behin eta berriz errepikatu dute ezin zutela ezer egin, bat-bateko ezgaitasun batek jo izan balitu bezala. Gai horiek guztiak espainiar estatuaren konpe-

tentzia direnaren mantra pean, Nafarroako Gobernuak bide eman dio gaur egun 15.000 enplegatu publiko baino gehiago behin-behinekoak izateari, eta soldaten igoera Madrilen esku uzteari.

Kezkagarria litzateke mantra hori egia balitz, eta are kezkagarriagoa Nafarroako Gobernuak autogobernuaren higadura hori horrelako otzantasunez eta obedi-entziaz onartzea. Errealitatea, ordea, bestelakoa da: ez Konstituzioak, ez Foru Hobe-kuntzak, ez beste edozein lege organikok ere ez dute ezartzen sektore publikorako gehieneko soldata edo langile-publiko kopurua eta berritze-tasa Estatuaren esku-men eskusiboa direnik. Izan ere, LORAFNAk berak dio, 49. artikuluan, Nafarroari dagokiola Foru Erkidegoko funtzionarioen estatutu-araubidearen gaineko esku-men osoa, Estatuko oinarritzko legeria errespetatuz.

Autogobernua mugatzen duen lege-muga bakarra Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea da, urtero Kongresuan negoziatu, adostu eta onartzen dena. Bertan finka-tzen dira langile publikoen soldata-igoeren eta berritze-tasen mugak. Neurri horiek 2010ean ezarri ziren murrizketen testuinguruan, gero PPren aurrekontuetan mantendu ziren, eta gaur egun ere indarrean jarraitzen dute, Sánchezek agintzen duenetik, EAJren eta EH Bilduren babesarekin.

Beraz, gatazka ez da eskumenen ingurukoa, borondate politikoaren kontua baizik. Aurrekontuak adostasun politikoen ondorio dira, eta adostasun horiek dira, hain zuzen, sektore publikoaren autogobernua eragozten duten oztopoak kendu ditza-ketenak —eta kendu beharko lituzketenak.

5.4. Irmotasunik ez zerbitzu publikoen defentsan eta hedapenean

ELAk behin eta berriz eskatu dio Nafarroako Gobernuari, erretorikaz harago, ekin-tza zehatzen bidez kalitatezko zerbitzu publikoak defendatzeko. Tamalez, ordea, ez da benetako apusturik egin oinarritzko zerbitzuak publikifikatzearen alde. Sal-buespen bakarra 2017an Osasunbideko sukaldeak berriro publiko egitea izan zen —bere garaian txalotu genuen neurri garrantzitsua—. Are gehiago, osasungintzako lege berriaren proiektuan Osasunbidera sartzen diren langileak, funtzionario izan beharrean, lan-kontratudunak izateko aukera jaso zen.

ELAren iritziz, kalitatezko zerbitzu publikoak defendatzea eta, aldi berean, zaintza sektorea negozio pribatuaren esku uztea bateraezina da. Gobernuak ez du egin adinekoen egoitzak, desgaitasunen bat duten pertsonentzako arreta edo gizar-te-arloko esku-hartzea publikifikatzeko apusturik, baina agerikoa da eremu horien guztiekiko zuen ardura, izan ere, sektore horiek kudeatzen dituzten enpresa pri-batuak finantzatzen ditu. Horregatik, hain zuzen ere, Gobernuak parte hartzen du hitzarmen horien negoziazioetan.

Baina Gobernua ez da nabarmendu langileen lan-baldintzak hobetzeko boron-dateagatik. Adibidez, Nafarroako egoitzen lehen hitzarmena negoziatzeko prozesua 2021ean hasi zen, eta oraindik ez da gauzatu, eduki nahikorik ez dagoelako. Desgaitasunaren sektoreko negoziazioan ere ez da aurrerapausorik eman, eta esku-hartze sozialean adostutakoa betetzeko oztopoak jartzen ari da.

6. UGT, CC.OO. ETA PATRONALA DIRU PUBLIKOAREKIN FINANTZATZEN DIRA ORAINDIK

Nafarroan, modu okerrean “elkarriketa soziala” deiturikoak historia luze eta iluna du. Sare horretan parte hartzen dutenek finantzazio publikoa jasotzen dute eta, trukean, Gobernuaren politika antisozialak legitimatzen dituzte: zerga-erreforma egiteari uko egitea, zerbitzu publikoetan inbertsio nahikorik ez egitea, zaintza pribatizatzea, AHT...

6.1. Aurrerapenak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko hitzarmenak ezabatzeko

“Elkarriketa soziala” deiturikoari dagokionez, UPNk Nafarroako Gobernua galdu ondoren hartu zuen lehen neurrietako bat Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta CEN, UGT eta CC.OO.ren arteko hitzarmena kentzea izan zen.

2015ean, besteak beste, enplegu-erregulazioko espedienteen (EEE) ustelkeria-kasuen testuinguruan, Rajoyren Gobernuak Estatuko araudia aldatu zuen (30/2015 Legea), eta enplegurako trebakuntzarako dirulaguntzak lehiaketa bidez eman behar zirela ezarri zuen. Ordura arte, CENek, UGTk eta CC.OO.k beren artean soilik banatzen zituzten funts horiek. Eskakizun hori saihesteko, UPNren Gobernuak aldebiko hitzarmenak sustatu zituen Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta hiru erakunde horien artean.

Horrela, 2015ean Nafarroako Enplegu Zerbitzuak gutxienez 23 hitzarmen egin zituen CEN, UGT eta CC.OO.rekin, administrazioaren berezko eginkizunak erakunde hauen esku utziz (adibidez, enplegu-behatokiaren kudeaketa edo migraturiko pertsonen arreta). Ondorioz, UGT eta CC.OO.ko 120 pertsona inguruk beren soldata osoa edo zati bat jaso zuten hitzarmen horien dirulaguntzen bidez.

ELAK klientelismo garbia zela salatu zuen eta hitzarmen horiek ezabatzeko borrokatu zen. Azkenean, Uxue Barkos buru zuen Gobernuak hitzarmen horiek baztertu zituen, eta hiru erakunde horiek diru publikoarekin finantzatzeari utzi zitzaion. ELAK erabaki hori txalotu zuen.

6.2. Enplegu-plan berriak, UGT, CC.OO. eta CEN finantzatzeko

UPN gobernutik kanporatu zenetik, bi enplegu-plan sinatu dira (2021-24 eta 2025-28). Horien bidez, diru-publikoa den 1.200 milioi euro baino gehiago bideratu

dira UGT, CC.OO. eta patronalaren eskuetara, berriro ere UPN eta PSN gobernua zeuden garaietara itzuliz. Izan ere, garai hartan lau enplegu-plan sinatu baitziren. Baina orain arte sinatutako enplegu-plan bakar batek ere ez du benetan balio izan lan-arazo nagusiei aurre egiteko, ezta prekarietateari, lan-segurtasunari edo soldaten galerei aurre egiteko ere.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta milioiak eman UGTri eta CC.OO.ri, eta patronalak sindikatu horiek babestu, ELA hazi egin da. 2010ean, lehen sindikatutik 600 ordezkari ingurura geunden; gaur egun, aldea 120 delegatu besterik ez da. Gainera, 2022ko urrian 1.500 delegatuko langa gainditu genuen Nafarroan, eta, ondorioz, juridikoki ere ordezkaritza handienekoa duen sindikatu bihurtu gara.

Ordezkaritza hazkunde honek eragin du azken urteetan UGT eta CC.OO. Nafarroako langileen ordezkaritza %50aren azpitik egotea eta, beraz, hitzarturiko azken bi enplegu-planek legitimitate demokratikorik ez izatea.

6.3. Ez da Elkarriketa Sozialerako Kontseilua indargabetu

Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin sinatutako hitzarmenak ez ziren izan Barcinak CENi, UGTri eta CC.OO.ri emandako kontraprestazio bakarra. Horrez gain, 22/2014 Foru Legearen bidez Elkarriketa Sozialerako Kontseilua sortu zuen.

ELAk behin eta berriz eskatu du organo hori indargabetzeko, baina, gaur-gaurkoz, ez da halakorik gertatu. Kontseilu horrek ez du inolako baliorik langileen eskubideak defendatzeko: patronalaren planteamenduei estaldura emateko eta parte hartzen duten entitateak diru publikoz finantzatzeko baino ez du balio.

6.4. ELA da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Gobernu Kontseiluan parte hartzen ez duen sindikatu bakarra

Uxue Barkosen Gobernuak Nafar Lansarea-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Gobernu Kontseiluko partaidetza zabaldu zuen eta parte-hartzerako irizpideak moldatu zituen, ELA eta LAB sindikatuak ere bertan egoteko aukera izan genezan.

Hala ere, sindikatuen artean, ELAk soilik egin zion uko parte hartzeari. Arrazoi argi batengatik: Gobernuaren mugimendu horrek ez zuen benetan zerbitzuaren funtzionamendua aldatzeko asmorik, itxuraldaketa huts bat egitea baizik.

Horrenbestez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Gobernu Kontseilua UGTren, CC.OO.ren eta LABen partaidetzarekin eratu zen.

6.5. Aldaketarik ez Nafarroako Lan Epaitegian

Nafarroako Lan Epaitegia lan-gatazketan bitartekaritza eta adiskidetze lanak egiteko sortu zen organoa da, UGTk, CC.OO.k eta CENek 1995ean sinatutako sektore-arteko akordioen ondorioz eta bere finantzazioa Nafarroako Gobernuaren esku dago erabat.

2018an, ELAk eta LABek Lan Epaitegia birfundatzeko proposamen bateratu aurkeztu genuen, gardentasuna eta ordezkaritza zabala bermatzeko helburuarekin, baina ordutik osatu diren gobernuek ez dute proposamena kontuan hartu.

7. ERAGINIK GABEKO POLITIKAK INOIZKO LANEKO EZBEHAR- TASARIK HANDIENAREN AURREAN

Nafarroa da Espainiar Estatu osoan laneko ezbehar kopururik handiena duen lurraldea. 2024tik hona, bi astean behin langile bat hil da bere lanpostuan. Egoera larria ez da kasualitatea: enpresek sistematikoki urratzen dituzte prebentzio-betebeharrak.

Are gehiago, Nafarroako Gobernuak berak bide ematen dio egoera honi, ez duelako ezbeharrak saihesteko neurri eraginkorrik ezartzen eta arazo larri honen kudeaketa elkarriketa sozialaren esku uzten duelako.

7.1. Garai bateko lurralde-ordezkararen figura berrezarri da

Lan-arriskuen prebentziorako Nafarroako ordezkararen figura 1995ean sortu zen, CEN, UGT eta CC.OO.ren arteko sektore arteko akordio baten baitan. Hala ere, hasieratik frogatu zen ez zela tresna eraginkorra, eta sindikatu horiek hauteskundee-tan beren interesak bultzatzeko baliatu zutela, batez ere.

2015ean, Uxue Barkosen Gobernuak figura hori ezabatu zuen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak erakunde zehatzekin eginiko hitzarmenak ezabatu zituenean. Baina paradoxikoki, Barkosen gobernuak berak berreskuratu zuen 2018an CEN, UGT eta CC.OO.rekin sinatutako akordio berri baten bidez. 2019tik aurrera, aurrekontu publikoetatik baliabideak bideratu dira haren finantzaketara. Are gehiago, indarrean dagoen 2025-28 Enplegu Planak 1,6 milioi euro esleitu dizkio figura horri, nahiz eta argi eta garbi frogatu den ez dela lan-istripuen prebentziorako tresna eraginkorra.

7.2. Patronalaren absentismo-diskurtsoa bere egitea eta mutualitateen boterea areagotzea

2025-28 Enplegu Planaren helburuetako bat “laneko absentziak bi puntu murriztea” da. Horrek esan nahi du enpresariak bultzatzen duten eta UGT eta CC.OO.ek bere egin duten ustezko “absentismoari” buruz duten diskurtsoa bere horretan onartu dela.

Neurri zehatzen artean, mutualitateen papera indartu da nabarmen. Hala, elkarlanean hitzarmenak aurreikusten dira Osasun Sailaren, Gizarte Segurantzarekin

lan egiten duten mutualitateen eta Gizarte Segurantzaren artean baja traumatologikoak artatzeko.

Horrek guztiak esan nahi du osasungintzako eta babes sozialeko sistema publikoa ezkutuan pribatizatzeke urrats berri bat egin dela, patronalen menpe dauden mutualitateei gaixotasun arruntengatikko bajen kudeaketan botere handiagoa emanez.

7.3. Lan-ezbeharren errua langileen bizkar jartzen duten patronalaren kanpainak gobernuak finantzatuta

Nafarroako Gobernuak ez du neurri eraginkorrik hartzen prebentzio-araudia sistematikoki urratzen duten enpresen aurka. Aitzitik, patronalaren diskurtsoa indartzen duten CENen kanpainak finantzatzen ditu, laneko ezbeharretan errua langileen bizkar jartzen duten kanpainak, hain zuzen ere.

Horren adibide da duela gutxiko kanpaina bat: diru publikoarekin finantzatu zen, eta enpresetan "sormen-kitak" banatu ziren —kasko bat, errotuladore bat eta diptiko bat, besteak beste—. Mezuetakoa bat haxe zen: "Lanean babestea norberaren erabakia da". Mezu horrek prebentzioa norbanakoen jarreraren menpe dagoela iradokitzen du, enpresek legea betetzeko duten eginbeharrean arreta jarri beharrean.

Gobernuak behin eta berriz errepikatzen du istripuak "erantzukizun partekatuaren" ondorio direla. Baina errealitatea beste bat da: laneko ezbehar gehienak gertatzen dira enpresek ez dituztelako bete beharreko prebentzio-neurriak betetzen.

7.4. Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak ez du edukirik eta ez da eraginkorra

2018an, ELAk eta LABek Nafarroako Lan Osasunaren Kontseilua utzi genuen bi arrazoi nagusitan oinarrituta: batetik, frogatua zegoelako ez zela eraginkorra; bestetik, mutualitateen soberakina UGTk, CC.OO.k eta patronalak bereganatzen zutelako, eta horrekin ez ginen batere ados.

Ondoren, LABek berriz sartzea erabaki zuen. ELA ez dator bat erabaki aldaketa horrekin. Azken Enplegu Planak are eskumen gehiago kendu dizkio organo horri, lurralde-ordetzariaren figura zaharkitua indartzen du eta mutualitateei baja arrunten kudeaketan botere handiagoa ematen die.

Beraz, ELAk berretsi egiten du bere ezezkoa: Kontseilu horrek ez du benetako edukirik, eta erabaki esanguratsu guztiak elkarriketa sozialaren esparru itxian negoziatzen dira, langileen eskubideak bigarren planoan utziz.

8. POLITIKA PUBLIKO FEMINISTAK EZ DIRA NAHIKOAK

Nafarroako politika publiko feministen balorazio osoa egitea zaila da, ez baitago lurralde osoa hartzen duen diagnostiko integralik. Esparru juridikoa, ordea, garatu samar dago: emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legea, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea. Baina lege horiek errealitate bihurtzeko, behar adinakoa eta eraginkorra den aurrekontu-esleipena behar da.

Emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Plan Estrategikoak (2022-27) aurrekontu osoaren %1 berdintasun-polituketara bideratzeko konpromisoa jasotzen du. Baina konpromiso hori ez da bete.

Gainera, Nafarroako Gobernuak berak aitortu du generoaren baitako soldata-arrakala badela. Baina horri aurre egiteko hartu duen neurri nagusia berdintasun-eragileak sortzea izan da, “elkarriketa sozialaren” esparruan. Neurri horrek 600.000 euroko partida du, baina praktikan, diru hori UGT eta CC.OO.ko zenbait nomina finantzatzeko erabiltzen da.

8.1. Greba feminista orokorraren aldarrikapenei entzungor

2023ko azaroaren 30ean, mugimendu feministak greba orokorrerako deia egin zuen, ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE, Etxalde eta CGTrekin batera. Leloa argia izan zen: “Zaintzarako eskubide kolektibo baten alde”.

Hala ere, Nafarroako erakundeek ez dute oraindik zaintzarako behar den estaldura bermatu mendekotasun-egoeretan dauden pertsonentzat —adinekoak, adin txikikoak edo zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboak—. Sistemak pribatizatua jarraitzen du, eta horrek zerbitzuaren kalitatea murrizten du eta lan-baldintzak prekarizatzen ditu.

Egoitzen kasua paradigmatikoa da: Nafarroan 72 egoitza badaude ere, bi soilik dira publikoak. Gainerakoak pribatizatuta daude, eta gehienetan, bai zahar egoitzetan bai eguneko zentroetan, ezartzen den hitzarmena Estatukoa da. Horrek 4.500 langile baino gehiago baldintza kaskarretan mantentzen ditu: 1.000 eurotik beherako soldatak, hilean asteburu bakarra libre, urtean 1.800 lanordu eta pertsona bakoitzeko 7 minutuko arreta soilik.

Etxeko langileen artean ere egoera errepikatzen da. Eremu honetan prekarietatea are handiago da eta langileen zati oso handi bat migraturiko emakumeak direla.

Nafarroako Gobernuak ezin du ez ikusiarena egin: diru publikoarekin sostengatzen den sektore pribatizatu, feminizatu eta arrazializatu honen gaineko erantzukizun zuzena du.

8.2. Erakundeen politika, sozialetatik deskonektatuta

Politika publiko feministak ezin dira zaintzara mugatu. Mugimendu feminista izan da azken urteotan aldarrikapen sozialen motor nagusietakoa: indarkeria matxistaren aurkako borroka, zaintzarako eskubidea, arrazakeriaren salaketa, eta sexu-identitateen aniztasunaren eta ikusgaitasunaren defentsa, besteak beste.

Azken urteetan mobilizazioak masiboak izan dira: 2018ko eta 2019ko greba feministak, indarkeria matxistaren kontrako protestak eta 2023ko greba feminista orokorra. Hala ere, Gobernuak ez du horien aurrean benetako erantzunik eman. Are gehiago, hain oinarritzkoa eta premiazkoa den Nafarroako egoitzen lehen hitzarmenaren negoziazioa ere ez du bultzatu.

9. POLIZIA-EREDUARI BURUZKO EZTABAIDA, EGITEKE DAGOEN BESTE ZEREGIN BAT

UPN Gobernutik kanporatu eta hamar urte igaro badira ere, Nafarroak oraindik ez dio ekin jendarteak behar duen polizia-ereduari buruzko eztabaida sakon eta integralari.

Foruzaingoak trafikoaren eskumena bere gain hartzea urrats garrantzitsua da, baina ez da nahikoa. Kidegoaren garapen integralaren abiapuntua baino ez litzateke izan behar, eta horrek ezinbestean eskatzen du polizia-eredu osoaren inguruko eztabaida zabala irekitzea.

9.1. Estatuko polizia-ratio handiena

Nafarroak du biztanleko polizia-kopururik handiena Estatu osoan: 1.000 biztanleko 7 agente. Datu horrek ez du soilik polizia-ereduaren inguruko eztabaida soilik mahaigaineratzen, baita Nafarroako gizarteak benetan behar duen polizia-kopuruari buruzkoa ere.

9.2. Guardia Zibila Foruzaingoan sartzeko “pasabidea”

2018ko Nafarroako Polizien Legeak —UPNren, Geroa Bairen, EH Bilduren eta Podemosen zati baten botoekin onartutakoak— eta Nafarroako Aurrekontuek —PSNren, Geroa Bairen, Zurekin eta EH Bilduren babesarekin— “pasabidea” izeneko mekanismoa txertatzen dute: Guardia Zibilaren agenteek Foruzaingoan sartzeko aukera ematen dien bidea, trafikoaren eskumena Foru Poliziak bere gain hartzearen testuinguruan.

Hala ere, polizia-ereduaren etorkizuna zuzenean baldintzatzen duen gai horrek oraindik ez du izan eztabaida publiko eta gardenik.

10. ENPRESEN NEURRIRA EGINDAKO INGURUMEN-POLITIKA

10.1. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta trantsizio energetikoa ahalbidetzeko erabakitasun falta


Aldaketa Klimatikoari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea: aurrerapen mugatuak eta erreforma eskasa

Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko 4/2022 Foru Legeak emisioak murrizteko helburuak ezartzen ditu, baina ez du ezartzen ez neurri zehatzik, ez egiturazko aldaketarik. Orain tramitatzen ari den erreformak logika berari eusten dio: asmo gutxi-ko helburuak, enpresentzako malgutasun handiagoa, epe luzeagoak eta energia esku-
ratzeko zailtasunak dituzten pertsona eta kolektiboentzat babesgabetasun handiagoa.


Berotegi-efektuko gasen kopurua handitzea

Berotegi-efektuko gasak dira klima-aldaketaren kausa nagusia; beraz, haien bila-
kaeraren azterketa erabakigarria da gobernuen ingurumen-politikak baloratzeko.

Nafarroak 2030erako %55 murriztu beharko lituzkeen isurketak, ordea, %22 handitu dira 2016 eta 2022 artean. Elektrizitate-sorkuntzak eta etxeetako kontsumoak soilik murriztu dituzte emisioak; aitzitik, industria eta garraioak beren emisioak hazten jarraitu dute. Gainera, esportatutako elektrizitatearen gorakada handiak tokiko ekoiz-
penaren eta herriarren benetako beharren arteko kontraesana agerian uzten du.




Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.


Trantsizio energetiko posible baten eta instalazio berriztagarrien plangintza on baten beharra

2030erako Nafarroako Energia Planak helburu argiak ezartzen ditu: energia kontsumoaren %50 berriztagarria izatea eta elektrizitatea %100 berriztagarria bihurtzea. Hala ere, gaur egun Nafarroan kontsumitzen den energiaren zatirik handiena oraindik fosila da: %43 petrolioia eta haren eratorriak, %24 gas naturala, eta elektrizitatearen zati bat ere fosil jatorrikoa da, Castejongo ziklo konbinatuko zentraletan sortua.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.


Energia kontsumoa, iturrien arabera 2015



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

2015-23 aldiko datuek erakusten dute ez dela aldaketa esanguratsurik gertatu energia kontsumitzeko moduan: energia-iturri bakoitzaren pisuak ia ez du aldaketarik izan, eta energia fosilarekiko mendekotasuna oraindik ere erabakigarria da. Energia osoaren azken kontsumoa %4 baino ez da murriztu, eta horrek agerian uzten du urrun gaudela energia fosila alde batera uzteko ezinbestekoa den kontsumoaren benetako murrizketatik.


Energia-kontsumo osoaren bilakaera (tpb*) 2015-23




Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Energia elektrikoaren sorkuntzak atal propioa merezi du, izan ere datuek irakurketa positiboa ahalbidetzen baitute.

Iturri berriztagarrien bidez sortutako elektrizitatea nagusi da. Eta azken hamarkadan, energia berriztagarrien sorkuntza %14 hazi da.




Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Horrez gain, sorkuntza hori dibertsifikatuta dago: eolikoa nagusi bada ere, fotovoltaikoak gero eta presentzia handiagoa du, batez ere autokontsumoaren hedapenari esker.



Iturria: Geuk egina, Nafarroako Gobernuaren datuak oinarri hartuta.

Beste datu esanguratsu bat esportatutako elektrizitatea da: sortutakoaren %26 esportatu egin zen. Kontuan hartuta %32 ez dela berriztagarria eta %26 esportatzen dela, ondoriozta daiteke Nafarroa gai dela kontsumitzen duen ia elektrizitate osoa berriztagarrien bidez sortzeko. Izan ere, %100 elektrizitate berriztagarria kontsumitzeko helburua gertu dago: 408.558 tpb kontsumitzen dira, eta 375.245 tpb elektrizitate berriztagarri sortzen dira.

Datu hauek argi uzten dute Nafarroako energia-politikan hutsune nagusia instalazio berriztagarrien plangintzarik eza dela. Energia-enpresa handien helburua ahalik eta ekoizpen berriztagarri handiena lortzea da, parke eoliko eta fotovoltaiko handien bidez, baina Nafarroako energia-beharrak kontuan hartu gabe. Enpresa horien lehentasuna negozioa da; ondorioz, instalazio berriztagarrien tramitazioa ez da egokitu tokiko premietara.

Egoera hauen aurrean, Nafarroako Gobernuak enpresei ateak ireki dizkie instalazio berriztagarri masiboak baimentzeko, plangintza publiko sendo baten orde. Hala ere, energia-politikak ez luke enpresa handien interesen zerbitzura egon behar; helburu nagusia klima-aldaketari aurre egitea eta gizartearen beharrei erantzutea izan behar du.

10.2. Nekazaritzako industria-ereduaren defentsa, elikadura burujabetza alde batera utziz

Elikadura subiranotasunaren alde lan egiten duten hainbat gizarte mugimenduk 2022an egindako "Nafarroako Elikadura Subiranotasunaren Erradiografia"-ren arabera, nekazaritzak Nafarroan duen egoera kezkarria da. Txostenaren ondorioek erakusten dutenez, diagnostikoa ez da batere baikorra:

- 2007 eta 2020 artean 21.000 hektareako nekazaritza-azalera desagertu da, eta gero eta esku gutxiagotan ari da kontzentratzen. 2005 eta 2020 artean nekazaritzan soilik aritzen ziren pertsonen ustiategiak erdira jaitsi dira. 2020an, ustiategien %25ean baino ez ziren emakumeak titular.
- Nekazaritzan aritzen diren pertsonen kopuruak behera egin du: azken 15 urteetan jaitsiera %10,6koa izan da. Aldi berean, sektoreko soldatapekoen kopurua %28 hazi da, lan-baldintza oso prekarioak dituen sektorean. Autonomoen %36 desagertu dira. Aipaturiko epean, nekazaritzako ustiategien erdia ere desagertu egin da. Ekoizle txikien desagerpena eta nekazaritzako enpresa handien hazkundera erakusten dute dira.
- Lurraren %25 bakarrik erabiltzen da zuzenean giza elikadurarako. Gainera, %75a animalien bazkarako eta beste erabilera batzuek dituzten zereak.

letarako erabiltzen da. Laborantza-lurren %65 inguru animaliak elikatzeko erabiltzen dela kalkulatzen da, batez ere abeltzaintza intentsiborako.

- Abeltzaintzan eredu nagusia intentsiboa da, ingurumen, klima eta gizartean inpaktu kaltegarriak eragiten dituzten makroetxaldeak gailentzen direlarik. Caparrosoko makroetxaldeko zuzendarien aurkako epaiketa —purinak eta beste hondakin batzuk legez kanpo isurtzeagatik— enpresa horien praktiken adibide argia da.
- Lehorreko laborantzak behera egin du, eta ureztatzeak gora. Joera hori ez da berdina lurralde osoan: iparraldean ureztatzea %4 baino ez da, eta Erriberagoienean %67ra iristen da.
- Gobernuak, Nafarroako Ubidearen bidez eta hara bideratutako Next Generation funtsekin, bertako herritarren elikadurarekin zerikusirik ez duen nekazaritza industrialia bultzatu du, esportaziora bideraturiko ustiapen jasanezinak hedatuz.
- Merkaturatzeari dagokionez, sektorearen esportazioak %218,9 handitu dira 2004 eta 2020 artean.

Nafarroako Gobernuak, bai nekazaritzan bai abeltzaintzan, industrialia eta nazioartekotua den eredia bultzatzen du, merkatu globalarekiko mendekotasun gero eta handiagoarekin. Pertsonen elikadura enpresa handien esku uzten ari da, eta haien lehenasuna ez da herritarren premiei erantzutea, baizik eta onura ekonomikoa handitzea.

10.3. AHTren aldeko apustua

Nafarroako Gobernuaren mugikortasun-politika batez ere AHTren bultzadan zentratu da, nahiz eta eskumena Espainiako Gobernuaren esku egon. Gobernuak pertsonen eta merkantzien mugikortasunerako egiten duen apustu nagusia da, baina aldi berean alde batera utzi ditu herriak eta eskualdeak lotzen dituzten egungo trenbide-lineak, gizartearen benetako beharrei erantzuten dietenak.

2015 eta 2024 artean, Adifek 252 milioi euro inbertitu ditu Nafarroako gizartearen-tzat zalantzezkoa eta salgaien garraiorako alferrikakoa den azpiegitura horretan. Estatuak, berriz, 2009tik 308 milioi euro gastatu ditu, obraren %10 baino ez, eta AHT da Nafarroari dagozkion inbertsioetan partida nagusia.

Kontuen Ganberaren arabera, azpiegitura horrek Castejon eta Iruñea arteko 214 kilometroetan 3.000 eta 4.000 milioi euro arteko kostua izango du guztira. Oraindik

egiteko daude Iruñeko geltokia eta Euskal Y-arekiko lotura: horiek aurrekontu propioa izango dute, baina ez dute ez ibilbide ez kokapen zehatzik. Horrez gain, AHTak are gehiago handituko ditu Nafarroak pairatzen dituen despopulazio-arazoak.

Bien bitartean, 2015-25 aldian, Nafarroako aurrekontuetan garraio publikoa sustatzeko aurreikusitako inbertsioa urtean 10 eta 15 milioi euro artekoa izan da batez beste, eta ia osorik dirulaguntzetara bideratu da.

10.4. Inpaktu ekologiko eta sozial larriko proiektuak babestea eta bultzatzea

Muga meategia

Geoalcali enpresak potasa ustiatzeko meategia ezarri nahi izan zuen Zangoza inguruan, eta Nafarroako Gobernuak proiektuari erabateko babesa eman zion, gizar-tearentzat onuragarritzat aurkeztuz eta berarekiko konpromiso osoa adieraziz. Errealitatea, ordea, bestelakoa zen: inpaktu ekologiko eta sozial handiko proiektua zen, eta auzitegiek atzera bota zuten 2024an.

Gainera, Santos Cerdánen inguruan ikertzen ari diren ustelkeria-kasuetan, Muga meategia UCOn txostenetan agertu da. Kasu honek ere argi erakusten du horrelako proiektuen atzean ezkutuko interes ekonomikoak daudela.

Erdiz

Nafarroako Gobernuak (PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin) Udalaz Gaindiko eraginaren Plan Sektoriala (UGPS) onartu zuen Erdizen, Baztan eta Esteribar artean, magnesita-meatze bat eraikitzeko. UGPSk proiektua udalaz gaindiko intereseko-tzat jo du, eta horrek esan nahi du eskumenak udalena izateari uzten diola.

Udalaz Gaindiko eraginaren Plan Sektorialaren onarpena ingurumenean eta gizartean eragin handia duen proiektu bat inposatzeko politikaren adibide argia da. Are gehiago, meatze-proiektua Kontserbazio Berezikiko Eremu (KBE) batean gauzatu nahi da. Arrazoi beragatik bertan behera utzi zuen, hain zuzen ere, Auzitegi Nagusiak Zilbetiko meategiaren proiektua.

Aroztegia

Aroztegiko proiektua hirigintza-espekulazioaren adierazle garbia da: 300 biztanleko herri batean 200 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du, besteak beste. Proiektuak ondorio larriak ekarriko lituzke: eskualdeko baliabide naturalen eta ingurumenaren suntsipena, ur-eskasia, nekazaritza-lurren galera, turistifikazioa, zerbitzu publikoen saturazioa eta etxebizitzaren espekulazioa.

Barcinaren Gobernuak 2015ean erabaki zuen proiektua UGPS baten bidez tramitatzea, eta Barkosen zein Chiviteren gobernuek proiektua babesten jarraitu dute.

Baztanen, herritarrak proiektuaren aurka mobilizatu dira, baina erantzuna izan da oposizioa kolektiboak kriminalizatzea. Horren ondorioz, zazpi pertsona auzipetu dituzte, eta 20 urte arteko espetxe-zigorra eta zigor ekonomiko handiak eskatu dizkiete.

ELAk argi utzi du auzipetuen absoluzioa dela bidezko ebazpen bakarra. Pozik hartu zuen sindikatuak epaiak talde kriminaleko kide izatearen delitua baztertu eta akusatuek kartzela saihestu izana, desobedientzia zibila eta gizarte-antolaketa kriminalizatzeko saiakera bertan behera utziz. Hala ere, ELAk arbuiatu egin du lehen instantzian ezarritako kondenak indarkeria erabiltzea egotzita, eta astakeriatzat jo du ezarritako 62.000 euroko isuna. Aldi berean, sindikatuak txalotu du errepresio ekonomiko horri kolektiboki aurre egiteko martxan jarritako elkartasun-kanpaina.

Bardeako Tiro Poligonoa

Azkenik, 2028an amaituko da Defentsa Ministerioaren eta Errege Bardeako Batzarren arteko Tiro Poligonoaren kontratua. Egia da gai hau Estatuaren eskumena dela eta Nafarroako Gobernuaren esku ez dagoela, baina ezin da ahaztu PSN — Foru Gobernuaren buru den alderdia — kontratua berritzearen alde agertu dela.

ONDORIOAK

Azterlan honetan jorratutako hamar gaien azterketak ondorio nagusi batera darama ELA: hamar urte igaro ondoren, Nafarroan “aldaketa politikoa” deiturikoak amaitu gabeko zeregina da. Are gehiago, zerga-sistema bezalako funtsezko esparruetan hasi ere ez da egin. Pobreziak bere horretan jarraitzeak eta hazkunde ekonomikoa nagusi izan den hamarkada batean desberdintasunak areagotu izanak agerian uzten dute aberastasunaren banaketa oraindik ere erronka nagusietako bat dela.

ELAren ustez, desberdintasun sozialak erreproduzitzen dituzten, sektore pibilegiatuei mesede egiten dieten edo euskararen normalizazioa eragozten duten politikak zuzentzeko beharrezkoak diren egiturazko aldaketak bultzatzeko azterketa kritiko batetik abiatu behar da. Horixe izan da, hain zuzen ere, dokumentu honen helburua. 2015ean UPN Gobernutik kanporatu izanak poza eta itxaropena ekarri zizkion gure sindikatuari, Nafarroako herritar askori bezala. Gaur egun ere garrantzitsutzat jotzen dugu UPN gobernuan ez egotea, baina hamar urte geroago, hausnarketa politikoa horretara mugatzea aldaketaren benetako irismenari buruzko balorazio zintzoa egitea eragozten duen argudioa da, eta, batez ere, egiteke dauden zereginiei bultzada ematea eragozten du.

Metatutako eskarmentuak erakusten du mugimendu sozial eta sindikalen egitekoak ez duela gobernatzen duenaren baitan egon behar: haien funtzioa da kalean eta lantokietan etengabe presioa egitea, politikek gizartearen beharrei erantzun diezaieten, eta ez elite ekonomiko, enpresarial edo erlijiosoen interesei. Baina 2015etik gobernuetan parte hartu duten alderdiek (PSN, Geroa Bai, EH Bildu, Podemos, Izquierda-Ezkerra eta Contigo-Zurekin) ez dute egiturazko aldaketarik sustatu; hau da, botere faktikoen pribilegioak zalantzan jarriko lituzketen eta eraldaketa politiko, ekonomiko, sozial eta kultural garrantzitsuei ateak irekiko lizkieten aldaketak. Horren erakusgarri da Sanz eta Barcinaren garaiko politiketako askok indarrean jarraitzen dutela: fiskalitatea ia ez da aldatu, Abiadura Handiko Trenak aurrera darrai, euskara ez da normalizatu eta UGT, CC.OO. eta CEN berriro diru publikoz finantzatzen dira.

Balantze kritiko honek ez du esan nahi zenbait esparrutan egindako aurrerapenak aitortu gabe uzten ditugunik: memoria demokratikoan, torturaren biktimen aitor-tzan, Skolae programaren ezarpenean edo aniztasun kultural eta politiko handi-goia onartzean aurrerapausoak egon dira. ELAk positibotzat jotzen ditu urrats horiek, baina beti azken hamarkadetan garatutako politika orokorren testuinguruan

kokatuz. Horregatik, ez ditugu partekatzen egiteke dauden zereginen garrantzia lausotzen duten diskurtso adeitsuak.

Erronka horren zailtasunez jabetzen gara eta badakigu ez dela nahikoa erakundeek egin dezaketenarekin. Aldaketa gauzatzeko, ezinbestekoa da oinarri sozialak antolatzea eta presioa egitea: gizarte zibiletik, mugimendu sozialetatik eta sindikatuetatik. Horrela bakarrik bultzatu daiteke benetako eraldaketa-prozesu bat.

ELAk konpromiso hori bere gain hartzen du. Independentzia politiko eta ekonomikoarekin lan egiten jarraituko dugu, beste erakunde sozial eta sindikalekin aliantzak bultzatuz, aldaketa ez dadin mugatu gobernuaren txandakatze batera, baizik eta Nafarroa solidarioago, euskaldunago eta berdinzaleago baten eraikuntzara.

AURKIBIDE XEHATUA

Hitzaurrea	5
1. Aurrerapauso nabarmenak normalizazio demokratikoan.....	9
1.1. Nafarroako gizartearen pluraltasuna aitortzea.....	9
1.2. Aurrerapausoak memoria demokratikoan, Erorien Monumentuaren mantentzea salbu	9
1.3. UPNrekin sekula onartuko ez ziratekeen legeak	9
1.4. Skolae programa ezartzea.....	10
2. Herriaren berrespenik gabeko estatus politikoa	11
2.1. LORAFNA zalantzan jartzen ez duen parlamentuko ponentzia	11
2.2. Espainiako Estatuarekin aldebikotasun faltsua	11
2.3. Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren gaineko eskumenak autogobernuan aurrera egitea dakar.....	12
3. 40 urtez ezarritako euskararen aurkako hizkuntza-politikari buelta emateko ezintasuna	13
3.1. Euskarari buruzko lege diskriminatzaileak indarrean eta hizkuntza-politika erabat eskasa	13
3.2. Administrazioan euskararen erabilerari buruzko dekretua: hizkuntza-eskubideak bermatu gabe	14
4. Aberastasunaren banaketa eta ekitate soziala ez da lehenetsi	16
4.1. Pobrezia eta desberdintasun soziala handitu dira, aberastasuna handitu den bitartean	16
4.2. Aurrekontu-politika neoliberala	17
4.3. Sanzen eta Barcinaren garaiko fiskalitate bera	21
4.4. Etxebizitza: bermaturik ez dagoen eta gero eta zailagoa den eskubidea.....	24
4.5. Banku publikorik ez.....	28
4.6. Industria-politikarik ez.....	29
4.7. Esleipen publikoak susmopean.....	29

5. Sektore publikoa Madrilen mende, prekarizaturik eta %47raino iritsi den behin-behinekotasunarekin.....	31
5.1. Sektore publikoko behin-behinekotasuna %38tik %47ra igo da	31
5.2. Eros-ahalmenaren galera	31
5.3. Madrilen mende eta autogobernua gainbeheran	31
5.4. Irmotasunik ez zerbitzu publikoen defentsan eta hedapenean	32
6. UGT, CC.OO. eta patronala diru publikoarekin finantzatzen dira oraindik	34
6.1. Aurrerapenak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko hitzarmenak ezabatzeko	34
6.2. Enplegu-plan berriak, UGT, CC.OO. eta CEN finantzatzeko	34
6.3. Ez da Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua indargabetu	35
6.4. ELA da Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Gobernu Kontseiluan parte hartzen ez duen sindikatu bakarra.....	35
6.5. Aldaketarik ez Nafarroako Lan Epaitegian	35
7. Eraginik gabeko politikak inoizko laneko ezbehar-tasarik handienaren aurrean.....	37
7.1. Garai bateko lurralde-ordezkararen figura berrezarri da	37
7.2. Patronalaren absentismo-diskurtsoa bere egitea eta mutualitateen boterea areagotzea	37
7.3. Lan-ezbeharren errua langileen bizkar jartzen duten patronalaren kanpainak gobernuak finantzatuta	38
7.4. Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluak ez du edukirik eta ez da eraginkorra.....	38
8. Politika publiko feministak ez dira nahikoak	39
8.1. Greba feminista orokorraren aldarrikapenei entzungor	39
8.2. Erakundeen politika, sozialetatik deskonektatuta.....	40
9. Polizia-ereduari buruzko eztabaida, egiteke dagoen beste zeregin bat	41
9.1. Estatuko polizia-ratio handiena	41
9.2. Guardia Zibila Foruzaingoa sartzeko "pasabidea"	41

10. Enpresen neurria egindako ingurumen-politika	42
10.1. Aldaketa klimatikoari aurre egiteko eta trantsizio energetikoa ahalbidetzeko erabakitasun falta	42
10.2. Nekazaritzako industria-ereduaren defentsa, elikadura burujabetza alde batera utziz	46
10.3. AHTren aldeko apustua.....	47
10.4. Inpaktu ekologiko eta sozial larriko proiektuak babestea eta bultzatzea	48
11. Ondorioak.....	50